

DressUpDynamo



Amaiur Garcia de Vicuña, Telmo Blazquez, Haizea del Barrio eta Izaro
Zenarruzabeitia.

DressUpDynamo

Gure proiektu berritzailea aurkeztuko dugu: **DressUpDynamo**. Imajinatu zure goizak errazten dituen armairu inteligente bat, zer iruditzen zaizu? Gailu berritzaile honek teknologiarik aurreratuen eta moda eta estilo pertsonalena konbinatzen ditu, eguneroko janzkera aukeratzean esperientzia zoragarria eta arazorik gabekoa eskaintzeko.

Armairu inteligenteak zure aurpegiarekin konbinatzen duen bitartean musika entzuteko aukera izango du; izan ere, *spotify* aplikazioa armairurekin konektatuta egongo da. Gailu honek goitik behera aldatuko du zure eguneroko bizitza. Esnatzean, hurbildu zure armairu inteligentera eta utzi bere esku egun horretan eramango duzun *outfita*.

BAINA NOLA FUNTZIONATZEN DU ARMAIRU INTELIGENTEA?

Lehenik eta behin, ongietorria emango dizu pantailak. Bigarrenik, zure estiloari, egoerari eta baldintza klimatikoari buruz galdetuko dizu. Sistemak zure erantzuna aztertuko du, eta, segundo gutxitan, ongi koordinatutako jantzi-aukerak aurkeztuko dizkizu. Lanerako kasualitatezko look bat nahi duzu? *Outfit* dotorea afari berezi baterako? Edo, agian, zerbait eroso etxean egun lasai baterako? Armairu Inteligenteak aukeratzen dizkizu!

NORENTZAT DAGO PENTSATUTA?

Armairu Inteligenteak goizeko errutina sinplifikatu eta moda berriak jarraitu nahi dutenentzat diseinatuta dago. Ezin hobea da eguneroko jantzietan erosotasuna eta

dotorezia baloratzen duten pertsona okupatuentzat. Espezifikoki, 15-60 adin tartean dauden pertsonentzat zuzenduta dago.

NON SALDUKO DUGU?

Gure armairu intelignentea prest egongo da datorren hilabetetik aurrera gure webgunenan online erosi ahal izateko, baita Gasteizko altzairu denda guztietan salgai egongo da. Prest egon modaren eta teknologiaren azken berrikuntzarekin janzteko modua aldatzeko!

Laburbilduz, Armairu Intelignenteak beti ahalik eta hobekien ibili eta sentituko zarela jakitearen erosotasuna eta konfiantza eskaintzen dizu. Erraztu zure eguneroko bizitza eta aurreztu denbora! Proiektu honek moda eta teknologia modu berritzailean konbinatzen ditu, janzteko modua definituz. Modaren eta estilo pertsonalaren etorkizuna iritsi da, eta zure armairuan dago.